

Lizar loredua

GURE ETXE ONDOKO bi sailetan, Malluan eta Ibaia izenekoaren beheko barrenean, zuhaitz handi batzuk udaberriarekin ezkondu dira. Zuri-laruz jantzi eta ezkondu. Lizarrak dira, urrutira ikusgarriak. Wikipediak “Euskal Herrian, modu naturalen, Arabako Badaia-Arrato mendilerroan baino ez da aurkitzen” dio. Beterriko inguru honetara txoriek-edo ekarriko zituzten...

Manaren lizarra deitzen diote gure auzoko hizkuntzek. Erdi Aroan, azala ebaki eta zerion izerdiari bibliako manaren antza hartzen zioten, nonbait. Jariakin horretatik sortutako azukreari manosa eta alkoholari manitola esaten zaie.

Lizar-lora jasotzen du Azkuek. Lakoizketak lizarra. Eta UZEIren izendegian lizar-loreduna esaten diote. *Fraxinus ornus*. “Lizar apaina” deituko nuke nik. Ornamentaziorako egokia adierazten du *ornus* abizenak. Bere loraldia ikusgarria da, gainontzeko lizarrena ez bezala, eta hortik aitortza hori.

Lizar guztiak loratzen dira, ordea. Gehienen lorea hostailaren kolorekoa da, ez da nabarmena. Lizar apainarena bai. Estrategia desberdinak dituzte hazia daraman fruitua eman behar duen lorea sortzeko. Lorean gertatu behar den bi sexuen arteko nahasketak nola burutuko den erakusten du bakoitzak.

Lorea ikusgarri egiteko kolore deigarritzko petaloz janzten dituztenek erleak edo beste intsektu batzuk erakarri nahi dituzte. Zenbaitek erakarri nahi duen intsektuaren antza duten petaloak erakitzen ditu. Lore batzuek zabaltzen duten usaina ere estrategia horren atal bat da. Energia horretara bideratzea eskatzen du estrategiak: lore ikusgarriak eta usaintsuak.

Beste batzuek, lore ia ikusiezinak egiten dituztenek, ez dute intsekturik erakarri behar. Haizea baliatzen dute polen arra emearen altzora eramateko. Horiek energia beste era batean erabiliko dute: polen asko, askoz ere gehiago sortuko dute. ■

LANDAREAK • ERDIKO KAIERA



Irakurleak galdezka

Kaixo. Orain hiru urte argazkietako limoiondoa opartu zidaten. Ontzia erosi eta hiru lekutatik ekarritako lurrez bete nuen. Han sartu nuen landarea. Oso ongi hazi da, indarrez. Baina fruitua ematean arazoak ditu.


Azken bi urteetan, loreak ekarri ditu eta itxuraz ongi hartu ere. Baina, limoiak oso handi egin baino lehen, ilun kolorea hartzen dute, eta azkenean lurrera erortzen dira. Ez dut uste zorri arazorik denik, tratatu izan baitut horren kontra. Beste zerbait izan behar du. Erremediorik badu?

Ongi izan.

Juan Jose (Elgoibar)



Kaixo Juan Jose. Landarea indarrean dagoela ikusten da. Bera bizi eta puja politak emateko gai da. Bina lorea ernalduta eta fruitua ezin ekarri. Arrazoia jatena falta dela esango nuke. Horri erantsi hosto batzuen itxura. Argazkiren batean argi ikusten da: hostoaren ertzean berdamera galdu gabe du, baina barru aldean, hostoaren bihotzeko zainen aldean marra horiztak ageri dira. Horrek nitrogeno eskasia adierazten du. Erremedioa ez da zaila: ontzi handiagoan aldatu, ahal duzun handiengan. Lur aberatsa jarri: baratzeke lur beltza, hondarra eta simaur zaharra heren bana. Gero, udaberritik udazkenara, hilean behin, oihal batean ardi-simaurra edo luarra bildu eta urez betetako ontzi batean sartu. Ura belzten denean horrekin ureztat. Bukatzeko, ontziari platerik ez jarri azpian, soberan den urak erraz alde egin dezala. Hemendik pare bat urtera argazki berriak ikusiko ditugu... ■



Bizi Baratzea, herriz herri

Bizi Baratzea liburua Euskal Herrian zehar aurkeztu dihardugu. Hauek dira hurrengo hitzorduak:

● **Maiatzak 6:** Donostia. Hontza liburu-dendan, 19:30ean.

● **Maiatzak 8:** Aizarna. Aranburu Baserri Turismoan, 22:00etan.

● **Maiatzak 11:** Aramaio. Oletan 18:00etan eta Ibarran 19:30ean.

(Zure herrian antolatzeke, deitu 943-37 15 45era edo idatzi sustapena@argia.eus-era). ■



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:
- Baratzeke landare ekologikoak
- Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
- Legutio ☎ 945 40 34 23

☎ 609 42 45 47 • lorelan@euskalnet.net

